Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2020ko abenduaren 22a, asteartea — 244 — Martes, a 22 de diciembre de 2020

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

## EKONOMIA SUSTAPENEKO, TURISMOKO ETA LANDA INGURUNEKO DEPARTAMENTUA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden unitate higiezinetara, Banda Zabal Ultralasterra hedatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2021eko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2020ko abenduaren 15eko bileran honako erabakia hartu du:

Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2015-2019 Kudeaketa Plan Estrategikoak aurreikusitako helburu zehatzen artean, 22. helburuan jasotzen zen landa ingurunean hiri ingurunearen antzeko zerbitzuak (integralak) eta gizarte ongizatea lortzea, biztanleriari eusteaz gain, landa eremuak erakargarri eta lehiakor egiteko asmoa. Aipatutako helburua betetzeko, Diputatuen Kontseiluak 2018ko maiatzaren 15ean egindako bileran erabaki zuen onartzea «Gipuzkoako 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan herriguneetatik 0 eta 2.000 metro bitarteko erradioan, kokatuta dauden unitate higiezin sakabanatuetara Banda Zabal Ultralasterra hedatzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta 2018ko deialdia.»

Egindako bidearen oinarri sendoen gainean, Diputatuen Kontseiluak onartutako 2020-2023ko Plan Estrategikoan, Gipuzkoako Foru Aldundiak erronka gisa hartu du Gipuzkoa eredua indartzea eta ezagutaraztea, eta gogotik lan egingo du herritarrek eredu hori babestu dezaten eta nazioartean aitortza eskura dezan. Ez alferrik, azkeneko urteetan, Gipuzkoak aurrera egin du era guztietako desberdintasunak gainditzeko bidean- ekonomikoak, sozialak, laboralak, generoarekikoak, kulturalak, linguistikoak, mugikortasunaren alorrekoak, landa inguruneen eta hiriguneen artekoak, iritzirik gure gizartea desegituratzen dutela eta arriskutsu direla erkidegoaren bizikidetzarako, gizarte kohesiorako eta lurralde orekarako.

2020-2023ko Plan Estrategikoa departamentu mailan zein maila estrategikoan gauzatzerakoan, ondorengo helburua mantendu eta sendotzen da: (10.H.E. Landagipuzkoa): Landa ingurunean hiri ingurunearen antzeko zerbitzuak (integralak) eta gizarte ongizatea lortzea, biztanleriari eusteaz gain, landa eremuak erakargarri eta lehiakor egiteko. Zehazki, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren erronken artean jasotzen da arreta berezia eskaintzea landa inguruneari, kontuan hartuta zer-nolako egiteko estrategikoa duen Gipuzkoako jarduera ekonomikoa sortzeko, jasangarritasuna sustatzeko eta lurraldeko biodibertsitatea, paisaia kultura eta nortasuna gordetzeko. Modu horretan, departamentuaren helburuen, jarduera ildoen eta izaera operatiboa duten ekintzen artean aurreikusten da Landagipuzkoa programa finkatzea eta gauzatzea, oinarrizko azpiegiturak zaindu eta hobetzeko (bideak eta ura), arrakala digitala gutxitzeko, jarduera erakartzeko, gizarte zerbitzuak hobetzeko, eta baita despopulazioa saihesteko ere.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

## DEPARTAMENTO DE PROMOCIÓN ECONÓMICA, TURISMO Y MEDIO RURAL

*Bases reguladoras y convocatoria 2021 del otorgamiento de ayudas para la extensión de la Banda Ancha Ultrarrápida a las unidades inmobiliarias diseminadas no conexas al núcleo urbano ubicadas en municipios de menos de 2.500 habitantes del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

El Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 15 de diciembre de 2020, ha adoptado el siguiente acuerdo:

Entre los objetivos concretos previstos en el Plan Estratégico de Gestión 2015-2019 de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el número 22 se recogía el de aspirar a alcanzar un nivel de servicios (integrales) y de bienestar social en el medio rural similar al del medio urbano, que además de favorecer el mantenimiento de la población, hiciera atractivas y competitivas esas zonas. Al objeto de dar cumplimiento a dicho objetivo, el Consejo de Gobierno Foral, en su reunión de 15 de mayo de 2018, acordó aprobar las «Bases reguladoras y convocatoria 2018 de ayudas para la extensión de la Banda Ancha Ultrarrápida a las unidades inmobiliarias diseminadas ubicadas en un radio de 0 a 2.000 metros de los cascos urbanos de municipios de menos de 2.500 habitantes del Territorio Histórico de Gipuzkoa.»

Sobre las sólidas bases del camino recorrido, en el Plan Estratégico 2020-2023 aprobado por el Consejo de Gobierno Foral, la Diputación Foral de Gipuzkoa se marca como retos fortalecer el «modelo Gipuzkoa», darlo a conocer, y trabajar para que sea defendido por la ciudadanía y reconocido internacionalmente. No en vano, en los últimos años, Gipuzkoa ha avanzado en la superación de las desigualdades económicas, sociales, laborales, de género, culturales, lingüísticas, en la movilidad, entre el mundo rural y el urbano, que desestructuran nuestra sociedad y ponen en riesgo nuestra convivencia comunitaria, cohesión social y equilibrio territorial.

En el despliegue del Plan Estratégico 2020-2023 a nivel departamental y estratégico se mantiene y consolida el objetivo (O.E.10. Landagipuzkoa) de alcanzar un nivel de servicios (integrales) y bienestar social en el medio rural similar al del medio urbano, que además de favorecer el mantenimiento de la población haga atractivas y competitivas esas zonas. En concreto, entre los retos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural se recoge el empeño de prestar especial atención al medio rural, dado su rol estratégico para la generación de actividad económica, sostenibilidad y mantenimiento de la biodiversidad y el paisaje, la cultura y la idiosincrasia de Gipuzkoa. Así, entre los objetivos, líneas de actuación y acciones de carácter operativo de dicho Departamento se contempla la consolidación y ejecución del programa Landagipuzkoa, orientado al mantenimiento y mejora de infraestructuras básicas (caminos y agua), disminuir la brecha digital, atraer actividad, optimizar servicios sociales, así como evitar el despoblamiento.

EK\CV GAO-I-2020-06797

Landagipuzkoa programa horren barruan, Agenda Digitala delakoak garrantzi berezia du Gipuzkoako landa udalerrientzat, Banda Zabal Ultralasterra jartzeak gizarteratzea eta lehiakortasuna sustatzeko duen garrantzia azpimarratzen baitu.

Helburu hori bat dator Europar Batzordeak Banda Zabal Ultralasterra zabaltzeko ezarrita dituen jarraibideekin. Ildo horretan, argigarria da ikustea Europar Batasunean, eskualde politikari lotutako jarraibideek, azkenaldi honetan, belaunaldi berriko azpiegiturak garatzeko politika publikoetatik sustatutako jarduketak sartu eta bultzatu dituztela, banda zabaleko sareen hedapen azkarrerako estatuetako laguntzen gaineko arauak aplikatzeko EBko jarraibideetan jasotzen den bezala (DOUE C 25, 2013-01-26); halaber, aipatutako jarraibideek jasotzen dute barneko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza kategoria jakin batzuk aitortzen dituen Europar Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduan aipatutako jarduketak sartzeko aukera, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz (DOUE L 187, 2014-06-26), gai horrek duen interes estrategikoagatik.

Nolanahi ere, ahalegin gehiago egin behar da alor horretan, gero eta gehiago erabiltzen direlako belaunaldi berriko teknologiak eta, halaber, teknologia horiek zabaltzeko zailtasun gehiago duten guneetan ere jarri behar direlako, hala nola, landaguneetan eta sarbide zaileko tokietan.

Hala, dentsitateko ekonomiak direla eta, normalean, banda zabaleko sareak hedatzea errentagarriagoa izaten da eskaera potentziala handiagoa den eta kontzentratuta dagoen lekuetan, hau da, biztanle-dentsitate handiko eremuetan. Inbertsioaren kostu finkoak handiak direnez, banakako kostuak nabarmen handitzen dira biztanle-dentsitatea jaisten denean; beraz, hedapena merkataritza ikuspegitik egiten denean, banda zabaleko sareek populazioaren zati bat bakarrik hartu ohi dute modu errentagarrian. Alabaina, banda zabala modu orokor eta eskuragarrian eduki ahal izateak eragin positiboak sortzen ditu kanpora begira, ekonomiaren sektore guztietan hazkundea eta berrikuntza azkartzeko gaitasuna baitauka. Merkatuak eskaintzen duen banda zabaleko estaldura nahikoa ez denean edo irisgarritasun baldintzak egokiak ez direnean, laguntza publikoak merkatuaren gabezia hori konpontzen lagundu dezake, hartara komunikatzeko eta gizartean parte hartzeko funtsezkoa den bitarteko baterako sarbidea hobetuko litzateke, eta gizarteko maila guztientzat berdintasuna bermatuko litzateke, gizarte eta lurralde kohesioa indartuz.

Aipatutako helburua betetzeko xedez, eta 2018ko deialdiaren arrakasta ikusirik, zeinaren bidez 2.500 biztanletik beherako udalerrietan sakabanatutako 2.000 unitate higiezin inguruk dagoeneko banda zabal ultralasterra baduten edo, berandu baino lehen, izango duten, beharrezkotzat jotzen da Gipuzkoan hiriguneetatik urruti dauden guneetako biztanleek Banda Zabal Ultralasterreko zerbitzuak izatea. Hain zuzen, bereziki garrantzitsua da Banda Zabal Ultralasterreko zerbitzu hori hainbat udalerritan «sakabanatutzat» jo daitezkeen guneetan hedatzea.

Era berean, Banda Zabal Ultralasterra hedatzeko beharra argi geratu da COVID-19 gaixotasunaren ondorioz sortutako osasun krisia dela eta. Dagoeneko zabaldutako azpiegitura aukera eman du landa eremu askotan aldi berean gauzatu ahal izateko jarduera ezberdinak: telelana, urrutiko hezkuntza edo aisialdiko edukien gozamena, hiriko eremuetako kalitate eta konektibitate berdinarekin; horrek frogatu du dagozkion telekomunikazio sareak hedatzeko garrantzia eta beharra.

Banda Zabal Ultralasterra hedatzeko dirulaguntzen 2018. urteko deialdian egin zen moduan, gaur egun Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatzen duen jarduketa eremuak dira 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden unitate higiezinak, baina aurreko deialdian ez bezala, hirigunetik 0 eta 2.000 metro bitarteko erradioan koka-

Dentro del mencionado Programa Landagipuzkoa sigue revistiendo especial importancia la Agenda Digital para los municipios rurales de Gipuzkoa, que subraya la importancia del despliegue de la Banda Ancha Ultrarrápida para fomentar la inclusión social y la competitividad.

Dicho objetivo se alinea con las directrices marcadas por la Comisión Europea en cuanto a la extensión de la Banda Ancha Ultrarrápida. En ese sentido, es esclarecedor ver que, en la Unión Europea, las pautas de la política regional en el último periodo han incorporado y animado la posibilidad de actuaciones de impulso desde las políticas públicas para el desarrollo de las infraestructuras de nueva generación, tal como se recoge en las Directrices de la UE para la aplicación de las normas sobre ayudas estatales al despliegue rápido de redes de banda ancha (DOUE C 25, de 26-01-2013), así como la inclusión de estas actuaciones en el Reglamento (UE) 651/2014 de la Comisión Europea, de 17 de junio de 2014, por la que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (DOUE L 187, de 26-06-2014), por su interés estratégico.

Este esfuerzo se debe seguir redoblando, motivado por la creciente utilización de tecnologías de nueva generación, así como por la necesidad de desplegarse también en zonas de mayor dificultad de despliegue, como las zonas rurales o de difícil acceso.

Así, debido a las economías de densidad, generalmente el despliegue de las redes de banda ancha es más rentable donde la demanda potencial es mayor y está concentrada, es decir, en zonas densamente pobladas. En razón de los altos costes fijos de inversión, los costes unitarios se incrementan considerablemente al descender la densidad de población y, por ello, cuando se despliegan en términos comerciales, las redes de banda ancha tienden a cubrir rentablemente solo una parte de la población. Sin embargo, el acceso generalizado y asequible a la banda ancha crea efectos externos positivos, dada su capacidad de acelerar el crecimiento y la innovación en todos los sectores de la economía. Cuando el mercado no ofrece suficiente cobertura de banda ancha o las condiciones de acceso no son adecuadas, la ayuda pública puede contribuir a poner remedio a esta deficiencia de mercado, constituyendo asimismo una forma de mejorar el acceso a un medio esencial de comunicación y participación en la sociedad, así como de garantizar la igualdad para todos los estratos sociales, reforzando de esta forma la cohesión social y territorial.

Al objeto de dar cumplimiento a dicho objetivo, y visto el éxito de la convocatoria de 2018, gracias a la cual cerca de 2.000 unidades inmobiliarias diseminadas de municipios de menos de 2.500 habitantes disponen ya o están en situación de disponer, más pronto que tarde, de Banda Ancha Ultrarrápida, se considera necesario que los habitantes de Gipuzkoa de zonas alejadas de los medios urbanos dispongan de servicios de Banda Ancha Ultrarrápida. Especialmente relevante resulta la necesidad de llevar dicho servicio de Banda Ancha Ultrarrápida a las zonas de las diferentes localidades que podrían ser denominadas «diseminados».

La necesidad de la extensión de la banda ancha ultrarrápida ha quedado asimismo de manifiesto como consecuencia de la crisis sanitaria derivada del COVID-19. La infraestructura ya existente ha permitido desarrollar en muchas áreas rurales actuaciones simultáneas de teletrabajo, educación a distancia o disfrute de contenidos de ocio con la misma calidad y conectividad que en áreas urbanas, habiéndose demostrado la importancia y necesidad del despliegue de las redes de telecomunicaciones correspondientes.

Al igual que en la convocatoria de ayudas para la extensión de la Banda Ancha Ultrarrápida del año 2018, las áreas en las que actualmente se plantea la actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa son unidades inmobiliarias diseminadas no conexas al núcleo urbano de municipios de menos de 2.500 habitantes, pero a diferencia de la anterior convocatoria, sin la limi-

EK\CV GAO-I-2020-06797

tuta egon behar izatearen muga gabe. Ondorioz, dirulaguntza horren 2020ko deialdiaren jarduketa eremua osatzen dute 2018ko deialdian dirulaguntzarik eman ez zitzaien Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden unitate higiezinak,, inolako mugarik gabe haien kokapenari dagokionez.

Elementu horiek guztiak kontuan hartuta, egokitzat jotzen da ekimen horren aldeko birplanteamendu eta ekintza publiko arduratsua egitea, betiere Landagipuzkoa+ Programaren helburuak aintzat hartuta eta Europar Batzordeak Banda Zabal Ultralasterra zabaltzeko ezarrita dituen jarraibideekin bat eginez. Horrela, gure asmoa da zerbitzu hau jartzea Gipuzkoako 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako ahalik eta unitate higiezin gehienetan, operadoreek duten hedapen gaitasunean oinarrituta eta, halaber, bermatuta ez dela inolako bazterkeria negatiborik egongo zerbitzuaren prezio edo kalitatean erabiltzailearen kokapenaren arabera.

Europar Batasuneko jarraibideek eta araudiak aurreikusten dute, orokorrean, administrazio publikoak sustatuko dituen belaunaldi berriko banda zabala hedatzeko estatuko laguntzak (edo NGA, 30Mbps-tik gorako abiadura izatea lortzen dutenak) «NGA gune zuriak» gisa katalogatutako guneetara mugatu behar dela, hau da, NGA banda zabaleko azpiegitura ez dagoen lekuetara eta hiru urteko epean azpiegitura hori baldintza komertzialetan garatzeko probabilitaterik ez dagoen lekuetara. Gorabehera hauek egiaztatu behar dira kontsulta publiko ireki baten bidez.

Gipuzkoako Foru Aldundiak planteatzen duen guneak (2018 ko deialdian dirulaguntzarik jaso ez zuten Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden unitate higiezinak), 2018ko deialdian dirulaguntza eman zitzaienak bezala, biztanle entitate berezietan (ESP) sartzen dira. Udalerri horien herriguneek badute edo laster izango dute banda zabaleko azpiegitura, baina laguntza publikoa ez badago, ez da helduko unitate higiezin sakabanatuetara.

Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzak (hemendik aurrera Seteleco) 2020. urtean kontsulta publikoa egin ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak emango dituen dirulaguntzen xede izan daitezkeen jardueren guneak argi eta garbi identifikatu dira biztanle entitate berezi gisa, non ziurtatu den ez dagoela belaunaldi berriko sarbide sareen estaldurarik eta operadoreetatik inork ez duela sarea hedatzeko planik ondorengo hiru urteetan.

Goian adierazi den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutako programaren xedea da Banda Zabal Ultralasterra eramatea 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietako herriguneetatik kanpo dauden unitate higiezin jakin batzuetara (aldez aurretik identifikatutako unitateetara). Unitate higiezin bakoitzarentzako proiektu espezifiko baten eskakizunaren ondorioz, baliteke dokumentu-karga handia sortzea interesdunentzat eta, beraz, komenigarritzat jotzen da operadoreen eskaerek hainbat unitate higiezin biltzea, baldin eta unitate horiek inbertsio berean sartzen diren eta denak laguntza jasotzeko baldintzak betetzen dituzten (aurrerantzean biltze horiek aipatzeko «zabaltze eremuak» izendapena erabiliko da). Horrela, proiektuek tamaina egokia izango dute, eta, aldi berean, behar bezalako xehetasunez zehaztu ahal izango dute jarduketen irismena; gainera, jarduketak modu egokian gauzatzen direla bermatuko da. Jarduketaren xede diren eremu sakabanatuen definizioa hiriguneetatik abiatuta ezarri da (hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden eremuak, 2018ko deialdian dirulaguntzarik jaso ez zutenak).

Laguntzen zenbatekoari dagokionez, laguntzaren gehieneko intentsitatea ezarri da (% 95), eta kontuan hartzen da zona

tación de que se ubiquen en un radio de 0 a 2.000 metros desde el casco urbano. En consecuencia, el ámbito de actuación de la presente convocatoria 2020 de ayudas lo constituyen las unidades inmobiliarias diseminadas no conexas al núcleo urbano de municipios de menos de 2.500 habitantes a las que no se otorgó de ayuda en la convocatoria de 2018, sin ninguna limitación por lo que se refiere a su ubicación.

A la vista de todos estos elementos parece oportuno un replanteamiento y una acción pública decidida que, siguiendo los objetivos del Programa Landagipuzkoa+ y teniendo presentes las directrices de la Comisión Europea en cuanto a la extensión de la Banda Ancha Ultrarrápida, aborde la pretensión de dotar de este servicio al mayor número posible de unidades inmobiliarias de los municipios de menos de 2.500 habitantes de Gipuzkoa, apoyándose en la capacidad de despliegue de las operadoras y, asegurando, a su vez, su disponibilidad sin ninguna discriminación negativa de precio o calidad de servicio en función de la ubicación del usuario.

Las directrices y normativa europea prevén que, con carácter general, el apoyo público en forma de ayudas de estado a los despliegues de redes de banda ancha de nueva generación (o NGA, que permiten velocidades superiores a 30 Mbps) debe limitarse a espacios catalogados como «zonas blancas NGA», esto es, zonas en las que no exista infraestructura de banda ancha NGA y en las que no sea probable que dicha infraestructura se desarrolle en condiciones comerciales en un plazo de tres años, circunstancias que deben verificarse mediante una consulta pública abierta.

Las áreas en las que se plantea la actuación de la Diputación Foral de Gipuzkoa (unidades inmobiliarias diseminadas no conexas al núcleo urbano de municipios de menos de 2.500 habitantes que no fueron objeto de ayuda en la convocatoria de 2018), al igual que a las que se otorgó de ayuda en la convocatoria 2018, se caracterizan por integrarse en entidades singulares de población (ESP) cuyo núcleo urbano cuenta o contará próximamente con infraestructura de banda ancha NGA que, sin embargo, a falta de un apoyo público decidido no alcanzaría a las unidades inmobiliarias situadas en esos «diseminados».

Tras la consulta pública realizada por la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones e Infraestructuras Digitales (en adelante Seteleco) en 2020, las áreas en las que podrán desarrollarse las actuaciones objeto de las ayudas de la Diputación Foral de Gipuzkoa han sido identificadas como zonas claramente delimitadas dentro de entidades singulares de población en las que se ha acreditado la ausencia de cobertura de redes de acceso de nueva generación y la inexistencia de planes para su despliegue por parte de ningún operador en los próximos tres años.

Como se ha señalado, el objeto del programa impulsado por la Diputación Foral de Gipuzkoa es que la Banda Ancha Ultrarrápida llegue a las concretas unidades inmobiliarias (previamente identificadas) situadas fuera del casco urbano de los municipios de menos de 2.500 habitantes. Como quiera que la exigencia de un proyecto específico para cada una de las unidades inmobiliarias puede generar una excesiva carga documental para los potenciales interesados, se considera conveniente permitir que las solicitudes de los operadores agrupen a varias unidades inmobiliarias, siempre y cuando esas unidades compartan una inversión común y todas ellas cumplan los requisitos para ser subvencionables (agrupaciones que en lo sucesivo se denominarán «zonas de despliegue»). De esa manera, se propicia que los proyectos tengan una dimensión adecuada pero que permita concretar con el necesario detalle el alcance de las actuaciones así como garantizar el seguimiento de su correcta ejecución. La definición de las zonas diseminadas objeto de actuación se establece a partir de los cascos urbanos (zonas no conexas al núcleo urbano, que no fueron subvencionadas en la convocatoria 2018).

Respecto al importe de las ayudas, se ha establecido una intensidad máxima de ayuda del 95 %, que tiene en cuenta la prác

hauetan behar diren azpiegiturak eraikitzeko interes komertzialik ez izatea. Intentsitate hori beste euskal erakunde batzuek (Eusko Jaurlaritza edo Arabako Foru Aldundia) sustatutako banda zabaleko hedapen-proiektuetan jasotakoaren antzekoa da, % 90eko laguntza intentsitatea jasotzen baitute. Gainera, % 90 eta % 95aren arteko aldea justifikatuta dago Gipuzkoako Foru Aldundiaren programak jasotzen dituen guneetan banda zabala jartzeak zailtasun handia duelako.

Beraz, erabaki honek merkatuan dauden gabeziak konpontzeko dirulaguntzak emateko oinarriak arautzen ditu, betiere «sakabanatutzat» jotako guneetan dauden unitateetan Banda Zabal Ultralasterra jartzeko ahalegina bultzatzeko.

Era berean, erabaki honen bidez aipatu dirulaguntzen 2021 eko deialdia onartzen da. Aurreikusitako gastua inbertsioen gauzatzeari hobeto egokitzeko eta dirulaguntzak banatzeko erabakia aurreratu ahal izateko, dagokion gastu espedientea aldez aurretik bideratzea aurreikusten da, abuztuaren 2ko 37/2006 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz.

Dirulaguntza horiek salbuetsita daude barneko merkatuarekin bateragarriak diren laguntza kategoria jakin batzuk aitortzen dituen Europar Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduak aurreikusitako jakinarazpenetik, Tratatuaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuz.

Laguntza horiek finantzatzeko, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuaren aurrekontuetan 2.000.000,00 euro daude jasota.

Era berean, 462/2015 Errege Dekretuak, ekainaren 5ekoak, xedatutakoaren arabera, erabaki honen bidez onartzen den laguntza programak lortu du Seteleco-ren aldeko txostena, oinarri hauen xede diren laguntzen bateragarritasunari buruzkoa, telekomunikazioen araubide juridikoari eta Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioaren banda zabaleko planei dagokienez.

Martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 16.1. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Diputatuen Kontseiluari dagokio dirulaguntza hauen oinarri arautzaileak onartzea.

Dirulaguntza lerro hau Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoan sartuta dago.

Hori horrela, Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onartzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden unitate higiezinetara, Banda Zabal Ultralasterra hedatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak, erabaki honen I. eranskin gisa eransten direnak.

*Bigarren.* Onartzea dirulaguntza horien 2021eko deialdia: erabaki honen II. eranskinean jaso dena.

*Hirugarren.* Deialdirako 2.000.000,00 euroko gastua baimentzea, ondoko kontu sail hauen kargura:

— 5.0240.400.770.00.06.2022 (1.000.000,00 €)

— 5.0240.400.770.00.06.2023 (1.000.000,00 €)

Edonola ere, espedientea aldez aurretik tramitatzen denez, dirulaguntzak eman ahal izateko ezinbestekoa izango da haiek

tica ausencia de interés comercial en afrontar la construcción de las infraestructuras necesarias en estas zonas. Esa intensidad es similar a la contemplada en proyectos de extensión de banda ancha impulsados por otras instituciones vascas (Gobierno Vasco o Diputación Foral de Alava), que contemplan una intensidad de ayuda del 90 %. La diferencia entre el 90 y el 95 % se justifica además en la mayor dificultad que plantea la implantación de la banda ancha en las zonas contempladas en el programa de esta Diputación Foral de Gipuzkoa.

De este modo, el presente acuerdo establece las bases que regirán la concesión de subvenciones que ayuden a subsanar las carencias del mercado, de manera que se incentive el despliegue de la Banda Ancha Ultrarrápida en las unidades sitas en las zonas denominadas como «diseminados».

Asimismo, mediante el presente acuerdo se aprueba la convocatoria 2021 de las citadas ayudas. Para una mejor adecuación del gasto previsto a la ejecución de las inversiones y al objeto de adelantar la resolución de concesión de las subvenciones, se prevé la tramitación anticipada del expediente de gasto correspondiente, de acuerdo con lo establecido en el Decreto Foral 37/2006, de 2 de agosto.

Estas subvenciones se acogen a la exención de notificación prevista en el Reglamento (UE) 651/2014 de la Comisión Europea, de 17 de junio de 2014, en el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado.

Para la financiación de dichas ayudas, en los presupuestos del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural se han consignado un total de 2.000.000,00 de euros.

Del mismo modo, tal como se establece en el Real Decreto 462/2015, de 5 de junio, el programa de ayudas que se aprueba mediante el presente acuerdo ha obtenido el pertinente informe favorable de la Seteleco, sobre la compatibilidad de las ayudas objeto de estas bases en relación con el régimen jurídico de las telecomunicaciones y con los planes de banda ancha del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital.

Conforme al artículo 16.1 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, corresponde al Consejo de Gobierno Foral la competencia para la aprobación de las bases reguladoras de la concesión de estas ayudas.

La presente línea de subvención se encuentra incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

En su virtud, este Consejo de Gobierno Foral, previa deliberación y a propuesta del diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural,

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para la extensión de la Banda Ancha Ultrarrápida a las unidades inmobiliarias diseminadas no conexas al núcleo urbano ubicadas en municipios de menos de 2.500 habitantes del Territorio Histórico de Gipuzkoa; se acompañan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria 2021 de dichas ayudas; se acompaña como anexo II al presente acuerdo.

*Tercero.* Autorizar un gasto por importe de 2.000.000,00 euros, para hacer frente a la convocatoria, con cargo a las siguientes partidas presupuestarias:

— 5.0240.400.770.00.06.2022 (1.000.000,00 €)

— 5.0240.400.770.00.06.2023 (1.000.000,00 €)

En todo caso, y dada la tramitación anticipada del expediente, la concesión de las subvenciones queda condicionada a la

EK\CV GAO-I-2020-06797

ematea erabakitzen den unean kreditu egoki eta nahikoa egotea Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako aurrekontu orokorretan.

Baldin 2021eko aurrekontuen foru arauan onartzen diren kredituak hasieran aurreikusitakoak baino handiagoak badira, organo kudeatzaileak hartuko du deialdi honetan aplikatzeari buruzko erabakia. Aplikatzea erabakiz gero, beste deialdirik egin gabe, dagokion gastu espedientea tramitatu beharko du dirulaguntza emateko ebazpena eman aurretik.

Ildo beretik, baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*Laugarren.* Ahalmena ematen zaio Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuari Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2021. urterako aurrekontu orokorrak onartzen direnean behar diren gastuak baimendu ditzan, behar adina kreditu egokia dagoela egiaztatu ondoren.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute interesdunek, Donostiako Administrazioarekiko Auzietako epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita bi hilabeteko epean. Bide hori erabili aurretik, berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete partikularrek Diputatuen Kontseiluari, aipatutako egunetik hasita hilabeteko epean. Dena dela, egokitzat hartutako beste edozein ere aurkez daiteke.

Donostia, 2020ko abenduaren 15a.—Segundo Díez Molinero, idazkari teknikoa. (6797)

I. ERANSKINA

*Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden unitate higiezinetara, Banda Zabal Ultralasterra hedatzeko dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak.*

*1. Dirulaguntzaren xedea.*

1.1. Xedeak eta jarduketa esparrua.

Laguntza horien helburua da 2018 deialdian dirulaguntzarik eman ez zitzaien Gipuzkoako Lurralde Historikoko 2.500 biztanle baino gutxiagoko udalerrietan hirigunetik aparte eta sakabanatuta dauden unitate higiezinetara Banda Zabal Ultralasterra hedatzea. Aurrerantzean, gune horiei «sakabanatuak» deituko zaie.

Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuak laguntza horiei dagokien atalean dirulaguntzak jaso ditzaketen jarduera eremuen zerrenda sartuko du LandaGipuzkoa+ web orrian (http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/landa-gipuzkoa/banda-ultra-azkarra). Gune horiek guztiak Setelecok deklaratutako «NGA gune zurietan» kokatzen dira. Biztanle entitate berezietan sartzen diren zati batzuetan egiaztatu da belaunaldi berriko sarbide sareen estaldura eza, eta operadoreetatik inork ez duela sarea hedatzeko planik epe laburrean.

Diruz lagungarriak diren jarduera eremuen zerrenda eguneratuta edukiko da oinarri hauek aplikagarri diren bitartean. Zerrenda horretan identifikatuko dira oinarri hauen arabera onartutako deialdi bakoitzean dirulaguntza jaso duten unitateak. Eguneraketan kontuan hartuko dira, alde batetik, Setelecoko gune zurien mapan sortu daitezkeen aldaketak, eta, bestetik, beste Herri Administrazio batzuek, NGA banda zabala hedatzeko, eskatutako edo jasotako laguntzen eraginez izandakoak.

existencia de crédito adecuado y suficiente en los presupuestos generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021 en el momento de la resolución de la concesión.

En el supuesto en que los créditos presupuestarios que resulten aprobados en la norma foral de presupuestos para 2021 fueran superiores a las cuantías inicialmente estimadas, el órgano gestor podrá decidir sobre su aplicación a la convocatoria, previa tramitación del correspondiente expediente de gasto antes de la resolución, sin necesidad de nueva convocatoria.

Asimismo, el importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Cuarto.* Se faculta al diputado foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural para autorizar los gastos que correspondan, una vez aprobados los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2021 y comprobada la existencia de crédito adecuado y suficiente.

El presente acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa, pudiendo las personas interesadas interponer contra el mismo recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses desde el día siguiente al de su publicación. Con carácter previo a la utilización de dicha vía, las personas particulares podrán interponer recurso de reposición ante este Consejo de Gobierno Foral en el plazo de un mes desde la fecha antes citada, todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro que se estime oportuno.

San Sebastián, a 15 de diciembre de 2020.—El secretario técnico, Segundo Díez Molinero. (6797)

ANEXO I

*Bases reguladoras del otorgamiento de ayudas para la extensión de la Banda Ancha Ultrarrápida a las unidades inmobiliarias diseminadas no conexas al núcleo urbano ubicadas en municipios de menos de 2.500 habitantes del Territorio Histórico de Gipuzkoa.*

*1. Objeto de la subvención.*

1.1. Objetivos y ámbito de actuación.

Estas ayudas tienen como finalidad extender la Banda Ancha Ultrarrápida a las unidades inmobiliarias sitas en aquellas zonas no conexas de los núcleos urbanos a las que no se otorgó ayuda en la convocatoria 2018, ubicadas en municipios de menos de 2.500 habitantes de Gipuzkoa. En adelante, dichas zonas serán denominadas «diseminados».

El Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural incluirá en el apartado correspondiente a estas ayudas de la página web LandaGipuzkoa+ (http://www.gipuzkoa.eus/es/web/landa-gipuzkoa/banda-ultrarrapida) la lista de zonas de actuación susceptibles de ser objeto de subvención. Todas ellas se ubican en áreas declaradas como zonas blancas NGA por la Seteleco, en tanto que partes claramente delimitadas dentro de entidades singulares de población en las que se ha acreditado la ausencia de cobertura de redes de acceso de nueva generación y la inexistencia de planes para su próximo despliegue por parte de ningún operador.

El listado de zonas de actuación subvencionables se mantendrá actualizado en tanto resulten de aplicación las presentes bases, identificándose en el mismo las unidades subvencionadas en cada convocatoria aprobada al amparo de las mismas. Esa actualización tendrá igualmente en cuenta las modificaciones que puedan producirse en el mapa de zonas blancas NGA de la Seteleco así como por la eventual solicitud o concesión de ayudas para la extensión de la banda ancha NGA por otras Administraciones públicas.

Oinarri hauetako dirulaguntzen esparrua izango da Europar Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamendua (EB), laguntza kategoria batzuk merkatu batuarekin bateragarri direla deklaratzen duena, Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuta (52. artikulua: banda zabaleko azpiegituretarako laguntzak).

1.2. Diruz lagundu daitezkeen gastuak eta inbertsioak.

Diruz lagundu daitezkeen gastu eta inbertsiotzat hartuko dira azpiegituraren hedapenaren inbertsioarekin zuzenean lotuta daudenak:

— Azpiegiturak eta obra zibila.

— Ekipamendua eta beste material batzuk.

— Langileen gastuak. Kontzeptu honetan sartzen dira entitate onuradunaren teknikariek proiekturako erabilitako orduak (onartutako aurrekontuaren ehuneko 7 gehienez ere). Kontzeptu honetatik kanpo gelditzen dira langile hauen kostuak: administraziokoak, kontabilitatekoak, giza baliabidekoak, Kudeaketakoak, marketinekoak, zuzendaritzakoak eta antzerakoak.

— Proiektuari egotzi beharreko beste gastu orokorrak edo zeharkakoak (proiektuaren xede den banda zabaleko sarea sortzeak edo berritzeak zeharkako kostuak sortzen baditu, hautagarriak izango dira, betiere kostu zuzenetan sartuta dauden eta diruz lagungarriak diren langileen gastuen % 15eko mugarekin, hori ezartzen baitu 2013ko abenduaren 17ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduak (EB) 68.1.b) artikuluan).

Diruz lagundutako inbertsioen edo gastuen kostua ezin daiteke inoiz merkatuko balioa baino handiago izan. Kostu hori gainditzen duten unitateak ezingo dira diruz lagundu, salbu eta, proiektuen dokumentazioa edo entitate eskatzaileari kasu honetan eska dakiokeen dokumentazio gehigarria, eta Balorazio Batzordeak eska ditzakeen txosten teknikoak ikusita, batzorde horrek irizten badu badaudela kostu horiek zuritzen dituzten inguruabarrak (teknikoak, ekonomikoak, topografikoak, etab.).

Diruz lagungarria den gastua azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, ezartzen duena baino gehiago bada, kontratu txikien kasuan, onuradunak hornitzaile desberdinei gutxienez hiruna eskaintza eskatu behar die obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, non eta diruz lagundutako gastuen ezaugarri bereziei begiratuz merkatuan obra egin, ondasuna hornitu edo zerbitzua emateko nahiko enpresa ez dagoen. Aurkeztu diren eskaintzak, zuriketan aurkeztu behar direnak edo, bestela, dirulaguntzaren eskaeran, efizientzia eta ekonomia irizpideen arabera hautatuko dira; alabaina, proposamen ekonomikorik onena hautatzen ez denean, berariaz zuritu beharko da memoria batean.

Ez dira gastu finantzagarritzat joko, inola ere, zeharkako zergak, berreskuratzekoak edo konpentsatzekoak izan daitezkeenean, ez eta errentaren gaineko zergak ere. Fakturan jasanarazitako balio erantsiaren gaineko zerga ez da diruz lagundu daitekeen gastutzat joko.

Ez dira diruz lagunduko, inola ere, eskaera aurkeztu aurretik egindako edo konprometitutako inbertsio eta gastuak, ezta ere laguntzaren onuradunak bakarrik erabil ditzakeen handizkako sarbidearekin zerikusirik ez duten azpiegiturei lotutakoak.

Nahiz eta dirulaguntzak ez egon soluzio teknologiko jakin bat hedatzearen baldintzapean, dirulaguntzaren xede diren sareak aipatutako guneetan telekomunikazio zerbitzuak emateko erabiliko dira, eta haiek bermatu beharko dituzte abiadura baldintza, sarbide abiadura, eta baldintza tekniko jakin batzuk, zehazki, biztanle gehiago duten eta lehiakorragoak diren guneetan (herriguneetan adibidez) ematen diren zerbitzuen maila bera bermatzeko baliagarri izango direnak; halaber, egokituta egon behar dira lehiakortasun handiko gune horietan, abiadura

Las ayudas contempladas en este acuerdo se acogen al Reglamento UE 651/2014, de la Comisión, de 17 de junio de 2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado (artículo 52: ayudas para infraestructuras de banda ancha).

1.2. Gastos e inversiones subvencionables.

Tendrán la consideración de gastos e inversiones subvencionables los siguientes conceptos directamente relacionados con la inversión asociada al despliegue de la infraestructura:

— Infraestructuras y obra civil.

— Equipamiento y otros materiales.

— Gastos de personal. Se incluyen en este concepto el coste de las horas directamente dedicadas al proyecto por personal técnico propio de la entidad beneficiaria (hasta un máximo del 7 por ciento del presupuesto aceptado). Queda excluido de este concepto el coste de personal de administración, contabilidad, recursos humanos, gestión, marketing, dirección y similares.

— Otros costes generales o indirectos imputables al proyecto cuando la creación o renovación de la red de banda ancha, objeto del proyecto, genere costes indirectos, serán elegibles, con el límite del 15 por ciento del gasto de personal subvencionable incluido en costes directos, de acuerdo con lo establecido en artículo 68, apartado 1, letra b), del Reglamento (UE) n.º 1303/2013, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 17 de diciembre de 2013).

En ningún caso el coste de las inversiones o gastos subvencionables podrá ser superior al valor de mercado. No serán subvencionables las unidades que superen dicho coste, salvo que, a la vista de la documentación de los proyectos o de la adicional que en este caso pueda requerirse a la entidad solicitante, así como de los informes técnicos que en su caso pueda solicitar la Comisión de Valoración, ésta estime que concurren circunstancias (técnicas, económicas, topográficas, etc.) que justifican los costes presupuestados.

Cuando el importe del gasto subvencionable supere las cuantías establecidas en la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, para el contrato menor, el beneficiario deberá solicitar como mínimo tres ofertas de diferentes proveedores, con carácter previo a la contratación del compromiso para la obra, la prestación del servicio o la entrega del bien, salvo que por sus especiales características no exista en el mercado suficiente número de entidades que los realicen, presten o suministren. La elección entre las ofertas presentadas, que deberán aportarse en la justificación o, en su caso, en la solicitud de la subvención, se realizará conforme a criterios de eficiencia y economía, debiendo justificarse expresamente en una memoria la elección cuando no recaiga en la propuesta económica más ventajosa.

En ningún caso se considerarán gastos financiables los impuestos indirectos cuando sean susceptibles de recuperación o compensación ni los impuestos personales sobre la renta. No tendrá la consideración de gasto subvencionable el Impuesto sobre el Valor Añadido repercutido en factura.

No serán subvencionables las inversiones y gastos que se hubieran comprometido o realizado con anterioridad a la presentación de la solicitud, ni las asociadas a infraestructuras no relacionadas con el acceso mayorista destinadas a su uso exclusivo por el beneficiario de la ayuda.

Si bien las subvenciones no están condicionadas al despliegue de una determinada solución tecnológica concreta, las redes objeto de subvención deberán utilizarse para la prestación de servicios de telecomunicaciones en las zonas objeto, debiendo éstas garantizar las condiciones de caudal, velocidad de acceso y resto de requisitos técnicos, que como mínimo aseguren los mismos niveles existentes para servicios equivalentes prestados en zonas más pobladas y competitivas como pueden ser las zonas urbanas, y así mismo estar adaptadas para permi-

EK\CV GAO-I-2020-06797

ebolutibo berean, etorkizunean eskainiko diren zerbitzu aurreratuagoen eboluzioa ahalbidetzeko.

Gutxieneko baldintza hauek bete beharko ditu erabilitako eta jarritako soluzioak:

— Sareak erabili beharko dira helburu-eremuetako biztanleei komunikazio elektronikoko zerbitzuak eskaintzeko (ez dira diruz lagundu daitezkeen elementutzat joko erabiltzaile kopuru mugatu bati zerbitzu ematera bideratutako sare pribatuak, ezta ere enborreko sareak, helburu-eremuetan azken erabiltzaileei zerbitzuak ematera zuzenduak ez direnak).

— Hiri-guneetan dauden baldintza bereko eskaintza komertzialak izango dituzte, eta amaierako erabiltzaileak izango duen transferentzia nominalaren tasa 300 Mb/s izango da gutxienez, modu simetrikoan, amaierako erabiltzailearengandik hurbilen dagoen operadorearen sareko ekipamenduaren irteeran neurtuta eta, halaber, operadoreak etorkizunean eskainiko dituen zerbitzu berrietara egokitzeko moduan egongo dira.

— Halaber, bi norabideetan datuen transferentzia mugagabea ahalbidetu beharko da, zerbitzuaren ezaugarri guztiak aldatu gabe mantenduz, oso populatuta dauden guneetako merkatuaren eskaintzen antzeko baldintza ekonomikoetan.

— Zerbitzuaren erabilgarritasuna segurtatu beharko da adierazitako terminoetan, gutxienez denboraren % 98rako hilabete bateko tartean, amaierako erabiltzaile bakoitzeko.

— Bermatzea proposatutako sarearen datuak transmititzeko zerbitzuaren kalitate-parametroak (jitter, latentzia eta bilben galera) nahikoak direla hiriguneetan eta biztanleria-dentsitate handia duten guneetan eskaintzen diren denbora erraleko zerbitzuen maila bereko multimedia komunikazio elektronikoen zerbitzuei eusteko, besteak beste, etorkizun hurbilean multimedia edukiak banatzeko bereizmen handian (HD) edo ultra bereizmen handian (UHD); halaber, banda zabalari dagokionez, egokituta egon behar dira etorkizun hurbilean iritsiko diren multimedia zerbitzu berrien eboluzioa ahalbidetzeko.

Ekonomia Gaietako eta Transformazio Digitaleko Ministerioko Telekomunikazio eta Azpiegitura Digitalen Estatu Idazkaritzaren belaunaldi berriko banda zabala hedatzeko programaren kargurako proiektuetan laguntzak eskatu eta jaso dituzten guneak ez dira programa honetako laguntzen hartzaileak izango; ezta ere Eusko Jaurlaritzako laguntza programen onuradunak, zeinen bidez Euskadiko industrialdeetan eta biztanle guneetan belaunaldi berriko banda zabaleko sareak hedatzeko laguntzak ematen diren; eta ezta ere banda zabaleko sareak jartzeko edo hedatzeko ekimenaren inguruan edozein administrazio publikok emandako laguntzen hartzaileak.

1.3. Handizkako zerbitzuak.

Dirulaguntzaren xede diren azpiegiturek aukera emango die eskaera egiten duten beste operadoreei CNMC Erregulatzaileak ezarritako baldintzetan haien gaineko zerbitzuak eskaintzeko.

Derrigorrez eman beharreko handizkako zerbitzu horien artean hauek daude:

— Desagregazioa eta linea fisikorako sarbidea.

— Desagregazio birtuala (VULA), hautatutako aukera teknologikoak ahalbidetzen badu eta sarbide horren benetako eskaria baldin badago.

— Zeharkako sarbidea edo banda zabaleko handizkako sarbidea.

— Konduktu eta azpiegituretarako sarbidea.

Eskainitako handizkako sarbidearen baldintza teknikoak, hain zuzen, oinarri hauetako 1.2 atalean planteatutako beharkizunak beteko dituen txikizkako zerbitzua bermatzeko modukoak izango dira.

tir la evolución a los nuevos servicios más avanzados que se vayan a ofrecer en el futuro en estas zonas de alta competitividad y a la misma velocidad evolutiva.

Se establecen los siguientes requisitos mínimos que deberá disponer la solución empleada e instalada:

— Las redes deberán utilizarse para la prestación de servicios de comunicaciones electrónicas disponibles para el público en las zonas objetivo (no se contemplan como elementos subvencionables las redes privadas destinadas a proveer servicio a un conjunto restringido de usuarios ni las redes puramente troncales no destinadas directamente a la prestación de servicios a personas usuarias finales en las zonas objetivo).

— Deberán permitir trasladar ofertas comerciales en las mismas condiciones que en las zonas urbanas, permitiendo como mínimo una tasa de transferencia nominal por persona usuaria final de 300 Mbps de forma simétrica, medidos a la salida del equipo de la red del operador más próximo a la persona usuaria final, y así mismo estar adaptadas para permitir la evolución a los nuevos servicios que el operador ofrezca en el futuro.

— Igualmente deberán permitir la transferencia ilimitada de datos en ambos sentidos, manteniendo todas las características del servicio inalteradas en condiciones económicas idénticas a las ofertas de mercado en zonas urbanas o más densamente pobladas.

— Asegurar la disponibilidad del servicio en los términos indicados, al menos para el 98 % del tiempo dentro del intervalo de un mes natural, por persona usuaria final.

— Garantizar que los parámetros de calidad de servicio de transmisión de datos de la red propuesta (jitter, latencia y pérdida de tramas) son los suficientes para soportar los servicios de comunicaciones electrónicas multimedia en tiempo real equivalentes a los ofrecidos en zonas urbanas y densamente pobladas, como por ejemplo la distribución de contenidos multimedia en alta definición (HD) o ultra alta definición (UHD) en un futuro próximo y estar adaptada para permitir la evolución en cuanto a ancho de banda a los nuevos servicios multimedia que vengan en un futuro próximo.

No serán objeto de ayuda en este programa las zonas para las que se hubiera solicitado o concedido ayuda con cargo al Programa de extensión de banda ancha de nueva generación (PEBA-NGA) de la Secretaría de Estado de Telecomunicaciones e Infraestructuras Digitales del Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital, los Programas de Ayudas del Gobierno Vasco a la extensión de redes de banda ancha de nueva generación en polígonos empresariales y en núcleos de población de Euskadi, o cualesquiera otras ayudas otorgadas por cualquier Administración Pública en relación a la instalación o difusión de redes de banda ancha.

1.3. Servicios mayoristas.

Las infraestructuras objeto de la subvención deberán permitir que otros operadores que lo soliciten, puedan ofrecer sobre las mismas servicios en las condiciones establecidas por el Regulador (CNMC).

Entre estos servicios mayoristas que estará obligado a prestar, se encuentran:

— La desagregación o acceso a la línea física.

— La desagregación virtual (VULA), cuando la opción tecnológica seleccionada lo permita y exista una demanda real de dicho acceso.

— El acceso indirecto o acceso de banda ancha al por mayor.

— El acceso a conductos e infraestructuras.

Las condiciones técnicas del acceso mayorista ofrecido deberán ser, como mínimo, las necesarias para garantizar un servicio minorista que cumpa con los requisitos planteados en el apartado 1.2 de estas bases.

EK\CV GAO-I-2020-06797

Nolanahi ere, hartutako soluzioa egokia izango da amaierako erabiltzaileei eskaintza komertzialak eskaintzeko, eta operadore onuradunak eskainitako txikizkako zerbitzuen erreplikagarritasuna ahalbidetu beharko du.

Handizkako eskaintzaren zehaztasunak gainerako operadore interesdunen eskura egongo dira, behar adinako denborarekin, azpiegituraren txikizkako ustiapena martxan jarri aurretik, laguntza jasotzen duen operadorearen txikizkako adarraren eta handizkako sarbidea eskatzen duten operadoreen artean diskriminazio traturik ez izateko.

Handizkako sarbide horren prezioen oinarri izango dira oinarri hauetan eskatutako zerbitzuetarako Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalak (CNMC) erabiltzen dituen prezio edo printzipioak eta prezioen kontrol baliabideak. Edonola ere, definitutako prezioek aukera eman beharko dute txikizkako eskaintzak erreplikatu ahal izateko eta operadore onuradunaren txikizkako adarrarekiko diskriminaziorik ez gertatzeko.

Europar Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Erregelamenduak (EB) –laguntza kategoria batzuk merkatu batuarekin bateragarri direla deklaratzen duenak, Itunaren 107. eta 108. artikuluak aplikatuta– 52.5 artikuluan xedatzen duenaren arabera, handizkako zerbitzua gutxienez 7 urtez eman beharko da eta kondukzio edo zutoinetarako sarbidea mugarik gabeko epean; diruz lagundutako proiektuen barruan kondukzioak egiten badira, horiek behar bezain handiak izango dira hainbat kable/zuntz sare eta hainbat sare tipologia hartzeko, eta koordinatuta egongo dira area geografiko berean egiten diren beste obra zibil batzuekin.

Prezio, ezaugarri tekniko, epe, edo handizkako sarbidearekin zerikusia duen beste edozein alderdiri dagokienez, gatazkaren bat sortzen bada operadoreen artean, laguntzaren onuradunaren eta handizkako sarbidea eskatzen duten operadoreen artean, Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalera jo ahal izango da (CNMC), betiere entitate horri gatazketan esku-hartzeko legeak aitortzen dizkion ahalmenak kontuan hartuta.

1.4. Azpikontratazioa.

Entitate onuradunak osorik edo zati batean azpikontratatu ahal izango du diruz lagundutako jarduera, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, 28. artikuluan ezarritako baldintzetan.

*2. Dirulaguntzen onuradunak.*

Oinarri hauetan adierazitako dirulaguntzen onuradunak izan daitezke, alde batetik, sektore pribatuko pertsona fisikoak edo juridikoak, behar bezala gaitutako operadore izaera badute, Telekomunikazioei buruzko 9/2014 Lege Orokorraren, maiatzaren 9koaren, 6. eta 7. artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta, bestetik, aipatutako pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteak.

Pertsona fisikoen edo juridikoen elkarteen kasuan, eskaeran erantsita doan dokumentuan espresuki adieraziko da, elkartearen kide bakoitzak egingo dituen exekuzio konpromisoak, baita aurrekontuaren zenbatekoa ere. Kide bakoitza, pertsona onuradun izaera izango du. Edonola ere, elkartearen ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu behar da, elkarteari onuradun gisa dagozkion betebeharrak betetzeko ahalorde nahikoa izango duena. Elkartea ezingo da desegin foru arau honen 37. eta 54. artikuluetan aurreikusitako preskripzio epea igaro arte.

Ezingo dira oinarri hauetan arautatako dirulaguntzen onuradun izan martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusitako egoera batean dauden pertsonak edo entitateak; Europar Batasuneko Batzordeak dirulaguntza legez kontrakoa dela eta merkatu bateratuarekin bateraezina dela aldez aurretik erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindupean dau-

En cualquier caso, la solución adoptada deberá ser la adecuada para ofrecer ofertas comerciales a las personas usuarias finales, en condiciones que permitan la replicabilidad de los servicios minoristas ofrecidos por el operador beneficiario.

El detalle de la oferta mayorista deberá de estar disponible al resto de los operadores interesados con un tiempo de antelación suficiente al inicio de la explotación minorista de la infraestructura, con el fin de evitar la existencia de un trato discriminatorio entre la rama minorista del operador beneficiario de la ayuda y los operadores solicitantes del acceso mayorista.

Los precios de este acceso mayorista deberán estar basados en los precios o principios e instrumentos de control de precios que utilice la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia para los servicios solicitados en estas Bases. En cualquier caso, los precios definidos deberán permitir la replicabilidad de las ofertas minoristas y que no se produzca una discriminación con la rama minorista del operador beneficiario.

Tal como se prevé en el artículo 52.5 del Reglamento (UE) 651/2014, por el que se declaran determinadas categorías de ayudas compatibles con el mercado interior en aplicación de los artículos 107 y 108 del Tratado, este acceso mayorista deberá ofrecerse como mínimo durante siete años y el derecho de acceso a conducciones o postes se otorgará por tiempo ilimitado; en el caso de que se construyan conducciones dentro de los proyectos subvencionados, estas serán lo suficientemente grandes para dar cabida a varias redes de cable/fibra y diferentes topologías de red, y deberán estar coordinadas con otras obras civiles que se realicen en la misma área geográfica.

De surgir algún conflicto entre operadores, entre el beneficiario de la ayuda y los operadores demandantes de acceso mayorista, en materia de precios, características técnicas, plazos o cualquier otro aspecto relacionado con el acceso mayorista, podrá acudirse a la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia (CNMC), atendiendo a las facultades de intervención en esos conflictos que esa entidad tiene legalmente reconocidas.

1.4. Subcontratación.

La entidad beneficiaria podrá subcontratar, total o parcialmente, la actividad subvencionada, en las condiciones establecidas en el artículo 28 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

*2. Personas beneficiarias.*

Podrán acceder a la condición de beneficiarias de las subvenciones contempladas en estas bases las personas físicas o jurídicas pertenecientes al sector privado, que ostenten la condición de operador de telecomunicaciones debidamente habilitado, conforme a lo establecido en los artículos 6 y 7 de la Ley 9/2014, de 9 de mayo, General de Telecomunicaciones, así como las agrupaciones de dichas personas físicas o jurídicas.

Cuando se trate de agrupaciones de personas físicas o jurídicas, deberán hacerse constar expresamente, en documento anexo a la solicitud, los compromisos de ejecución asumidos por cada miembro de la agrupación, así como el importe de presupuesto a ejecutar por cada uno de ellos, que tendrán igualmente la consideración de persona beneficiaria. En cualquier caso, deberá nombrarse una persona representante o apoderada única de la agrupación, con poderes bastantes para cumplir las obligaciones que, como persona beneficiaria, corresponden a la agrupación. No podrá disolverse la agrupación hasta que haya transcurrido el plazo de prescripción previsto en los artículos 37 y 54 de la Norma Foral 3/2007.

Quedan excluidas como beneficiarias de las subvenciones reguladas en estas bases las personas o entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, las que estén sujetas a una orden de recuperación pendiente tras una decisión previa de la Comisión de la Unión Europea que haya declarado una

EK\CV GAO-I-2020-06797

denak; eta krisian dauden enpresak, betiere estatuko salbamendu-laguntzei eta krisian dauden enpresa ez-finantzarioen berregituratzeari buruzko gidalerroen definizioarekin bat eginez (DO C249, 2014-07-31).

Onuraduna izateko baldintzak dirulaguntza indarraldian dagoen bitartean mantendu beharko dira.

*3. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.*

Eskaerak, ezarritako dokumentazioarekin batera, Internet bidez aurkeztuko dira nahitaez, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren (https://egoitza.gipuzkoa.eus) bitartez, dirulaguntzen atarian sartu (sinadura elektronikoaren edo pasahitzaren bidez) eta ondorio hauetarako bertan eskuragarri jarritako berariazko inprimakia erabiliz. Eskaerak eta dokumentazio osagarria aurkezterakoan foru dekretu hau bete behar da: irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua, Foru Administrazioan baliabide elektronikoen erabilera arautzen duena.

Eskaeran adieraziko da enpresaren izena eta tamainaren identifikazio zehatza, proiektuaren deskribapena, hasiera eta bukaera data, proiektuaren kokapena, proiektuaren kostuen zerrenda, eskatzen den dirulaguntzaren portzentajea eta proiektua gauzatzeko finantzaketa publikoaren zenbatekoa.

Laguntza hauei buruzko informazio guztia eskuragarri izango da LandaGipuzkoa+ web orrian (http://www.gipuzkoa.eus/eu/web/landa-gipuzkoa/banda-ultra-azkarra); halaber, laguntzak eskatu nahi dituzten operadoreek jakin dezaten, diruz lagundu daitezkeen edo dagoeneko diruz lagundutako unitate higiezinei buruzko informazio eguneratua izango da orri horretan, eta bertatik sartu ahal izango da aurreko paragrafoan aipatutako egoitza elektronikora, dagokion eskaera egiteko.

Argitaratutako informazioan jasoko dira Europar Batasunak banda zabaleko sareak azkar hedatzeko estatu mailako laguntzei buruzko arauak ezartzeko emandako jarraibideen 3.4.j) atalean adierazitako edukiak, baita ere banda zabaleko sareen eskaintza eta erabilgarritasuna sustatuz informazioaren gizartea bultzatzeko laguntza publikoen inguruan herri administrazioen arteko koordinazioko tresnak eta prozedurak arautzen dituen ekainaren 5eko 462/2015 Errege Dekretuak 5.1.c) artikuluan adierazitakoak.

Bat baino unitate higiezin gehiago hartzen dituzten laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dira batera, zabaltze eremu berean kokatutakoak.

Eskaerak aurkezteko epea eta horri erantsi beharreko dokumentazioa deialdian ezarriko dira.

Eskatzaileek ez dituzte jada Gipuzkoako Foru Aldundiak badituen dokumentuak aurkeztu beharko, hala xedatzen baitu 53.1.d) artikuluan urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, betiere dagokion prozedura amaitu ondoren ez badira bost urte iragan. Eskaera orrian zein organoren aurrean edo bulegotan eta noiz aurkeztu ziren edo, hala badagokio, jaulki ziren, adierazi beharko da.

*4. Akatsak zuzentzea.*

Eskariak edo horrekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak ez badituzte identifikazio datu guztiak, edo akatsen bat baldin badute, edo osatzeke baldin badaude, 10 egun balioduneko epean akats horiek guztiak konpontzeko eskatuko zaio eskatzaileari, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearenak 68.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz; eta ohartaraziko zaio ezen, eskatutakoa

ayuda ilegal e incompatible con el mercado común, así como las empresas en crisis, de acuerdo con la definición de las Directrices sobre ayudas estatales de salvamento y de reestructuración de empresas no financieras en crisis (DO C249, 31-07-2014).

Las condiciones para poder ser beneficiaria habrán de mantenerse durante todo el periodo de vigencia de la subvención.

*3. Forma y plazo de presentación de solicitudes.*

Las solicitudes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán obligatoriamente vía Internet, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones mediante la firma electrónica o la clave operativa, y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos. Esta presentación de las solicitudes y de la documentación complementaria se realizará en los términos previstos en el Decreto Foral 23/2010, de 28 de septiembre, por el que se regula la utilización de medios electrónicos en el ámbito de la Administración Foral.

La solicitud expresará la identificación precisa del nombre y tamaño de la empresa, la descripción del proyecto incluyendo las fechas de inicio y finalización, la ubicación del proyecto, la lista de costes del proyecto, así como el porcentaje de subvención que se solicita y el importe de la financiación pública necesaria para el proyecto.

Toda la información relativa a estas ayudas estará disponible en la página web LandaGipuzkoa+ (http://www.gipuzkoa.eus/es/web/landa-gipuzkoa/banda-ultrarrapida), donde se mantendrá actualizada, para conocimiento de los operadores interesados en solicitar las ayudas, la información sobre las unidades inmobiliarias susceptibles de subvención o las ya subvencionadas y desde la cual se podrá acceder a la sede electrónica citada en el párrafo anterior para la formulación de la correspondiente solicitud.

La información publicada incluirá los contenidos señalados en el apartado 3.4.j) de las Directrices de la Unión Europea para la aplicación de las normas sobre ayudas estatales al despliegue rápido de redes de banda ancha, así como en el artículo 5.1.c) del Real Decreto 462/2015, de 5 de junio, por el que se regulan instrumentos y procedimientos de coordinación entre diferentes Administraciones Públicas en materia de ayudas públicas dirigidas a favorecer el impulso de la sociedad de la información mediante el fomento de la oferta y disponibilidad de redes de banda ancha.

Se admitirá la presentación conjunta de solicitudes de ayudas que incluyan diferentes unidades inmobiliarias, agrupadas en una misma zona de despliegue.

El plazo de presentación de solicitudes y la documentación que deba acompañarlas se fijarán en la convocatoria.

Las personas solicitantes no estarán obligadas a presentar los documentos que ya obren en poder de la Diputación Foral de Gipuzkoa, de conformidad con lo previsto en el artículo 53.1.d) de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, siempre que no hayan transcurrido más de cinco años desde la finalización del procedimiento al que correspondan. Deberán indicarse en el impreso de solicitud la fecha y el órgano o dependencia en que fueron presentados o, en su caso, emitidos.

*4. Subsanación.*

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la persona solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, para que, en el plazo de diez días hábiles, subsane los defectos detectados, con indicación

egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, aipatutako legearen 21.1 artikuluan aurreikusitako moduan.

*5. Emateko prozedura.*

Dirulaguntzak elkarren arteko lehiako prozeduraren bidez emango dira, dauden kreditu mugen barruan, eta ofizioz hasiko da organo eskumendunak onartutako eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratutako deialdi publikoaren bidez.

*6. Finantzaketa.*

Dirulaguntzak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Aurrekontu Orokorren kargura finantzatuko dira. Deialdiak ezarriko du dirulaguntzak aurrekontuko zein kreditu zehatzen kontura izango diren.

*7. Prozedura antolatu eta bideratzeko eskumena duten organoak.*

Dirulaguntza horiek emateko prozedura bideratzea Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Laguntzen eta Erregistroen Zerbitzuari dagokio.

Aurkeztutako eskaerak aztertzeko eta ebaluatzeko ebaluazio batzorde bat eratuko da; eta batzorde horrek ebazpen proposamen bat emango du, egindako ebaluazioaren emaitza zehaztuta; eta organo eskumendunari bidaliko dio, onar dezan. Ebaluazio batzorde hori ondorengo kideez osatuta egongo da:

— Nekazaritzako eta Lurralde Orekako zuzendari nagusia.

— Landa Udalerrien Garapenerako zuzendari nagusia.

— Etorlur Gipuzkoako Lurra SA sozietate publikoaren gerentea.

— Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko Idazkari Teknikoa.

Batzorde horrek bidezko irizten dituen aholkularitza eta txosten teknikoak eskatu ahal izango ditu aurkeztutako eskaerak behar bezala baloratzeko.

*8. Balorazio irizpideak.*

Banaka aztertu eta baloratuko dira laguntza honen xede diren unitate higiezinetarako operadoreek aurkeztutako proiektuak; horretarako, ebaluazio batzordeak irizpide hauek aplikatuko ditu:

de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistida de su petición, en los términos previstos en el artículo 21.1 de ese mismo texto legal.

*5. Procedimiento de concesión.*

La concesión de las ayudas se realizará por el procedimiento de concurrencia competitiva, dentro de los límites del crédito existente, y se iniciará de oficio mediante convocatoria pública aprobada por el órgano competente y publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

*6. Financiación.*

Las subvenciones que, en su caso, puedan otorgarse se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa. La convocatoria establecerá los créditos presupuestarios concretos con cargo a los cuales se financiarán las subvenciones.

*7. Órganos competentes para la ordenación e instrucción del procedimiento.*

La instrucción del procedimiento de concesión de estas subvenciones corresponderá al Servicio de Ayudas y Registros del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

Para el análisis y evaluación de las solicitudes presentadas se constituirá una Comisión de Valoración, que emitirá una propuesta de resolución en la que se concretará el resultado de la evaluación efectuada y será elevada al órgano competente para su aprobación. Dicha Comisión estará compuesta por los miembros que figuran a continuación:

— El director o directora general de Agricultura y Equilibrio Territorial.

— El director o directora general para el Desarrollo de Municipios Rurales.

— El o la gerente de la sociedad pública Etorlur Gipuzkoako Lurra, S.A.

— El/la Secretario/a Técnico/a del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

La Comisión de Valoración podrá solicitar el asesoramiento y la emisión de los informes técnicos pertinentes para una adecuada valoración de las solicitudes presentadas.

*8. Criterios de valoración.*

Se analizarán y valorarán individualmente cada uno de los proyectos que presenten los distintos operadores para las unidades inmobiliarias objeto de estas ayudas; a tal fin, la Comisión de Valoración aplicará los criterios que se detallan a continuación:

| | *Irizpidea* | *Criterio* | *Puntuak / Puntos* |
|---|---|---|---|
| 1 | Proposatutako inbertsioaren eraginkortasun ekonomikoa (formularen arabera aplikatu beharrekoa)*. | Eficiencia económica de la inversión propuesta (de aplicación por fórmula)*. | 60 |
| 2 | Eragin sozioekonomikoa:<br>- Garapen ekonomikoa (gune horietako biztanle kopurua ez murrizteko hedapenak).<br><br>- Gune horietan enplegua eta jarduera ekonomikoa sortzea (negozio berriak garatzea).<br>- Herrigune horietatik gertu dauden beste gune batzuetan sareak hedatzeko baliagarri izatea.<br>- Beste eragin sozioekonomiko eta demografiko batzuk. | Impacto socioeconómico:<br>- Desarrollo económico (despliegues que eviten la disminución del número de habitantes que se encuentran en estas zonas).<br>- Creación de empleo y actividad económica (desarrollo de nuevos negocios) en estos núcleos.<br>- Impacto en facilitar los despliegues de redes en otros núcleos próximos a estos núcleos poblacionales.<br>- Otros impactos socioeconómicos y demográficos. | 10 |

EK\CV GAO-I-2020-06797

| | *Irizpidea* | *Criterio* | *Puntuak / Puntos* |
|---|---|---|---|
| 3 | Exekuzioaren Proiektu Teknikoa, definizio maila eta proiektuaren egokitzapena:<br>- Aukeratutako soluzio teknologikoaren egokitzapena eta jasangarritasuna.<br>- Faseen edo mugarrien identifikazioa.<br>- Jardueren eta erabiliko diren baliabideen xehetasunak.<br>- Elkarturiko arriskuen identifikazioa eta kudeaketa (kontingentziak). | Proyecto técnico de ejecución, grado de definición y adecuación del proyecto:<br>- Adecuación y sostenibilidad de la solución tecnológica elegida.<br>- Identificación de las fases e hitos.<br>- Detalle de actividades y recursos involucrados.<br>- Identificación y gestión de los riesgos asociados (contingencias). | 10 |
| 4 | Lortu nahi den soluzioaren ahalmena eta eskalabilitatea:<br>- Teknologiaren eboluzio gaitasuna.<br>- Zerbitzuen eboluzio gaitasuna.<br>- Teknologia aldetik egungo nahiz etorkizuneko merkatu eskariei egokitzea eta eraginkortasun teknologikoa sustatzea. | Potencial y la escalabilidad de la solución pretendida:<br>- Capacidad de evolución de la tecnología.<br>- Capacidad de evolución de los servicios.<br>- Adecuación tecnológica a la demanda de mercado, tanto a las existentes, como a las futuras y su eficiencia tecnológica. | 10 |
| 5 | Jasangarritasuna eta eraginkortasun teknikoa. Azpiegituren aprobetxamendua:<br>- Kostuen aurrezpena, azpiegitura publikoak, propioak edo hirugarren operadoreenak erabiltzeagatik. | Sostenibilidad y eficiencia técnica. Aprovechamiento de infraestructuras:<br>- Ahorro de costes por aprovechamiento de infraestructuras públicas, propias o de terceros operadores. | 10 |
| | | Guztira / Total | 100 |

| | |
|---|---|
| * Proposatutako inbertsioaren eraginkortasun ekonomikoa" irizpideari dagokionez, aurkeztutako proposamen bakoitzari esleituko zaizkio puntuak formula honen arabera: | * En referencia al criterio «Eficiencia económica de la inversión propuesta», los puntos se asignarán a cada propuesta presentada en función de la siguiente formula: |
| P.Imp = 30*Im/Io<br>P.UIn = 30*UIo/UIM<br>Po = 60*(P.Imp+P.UIn)/MAX(P.Imp+PUIn) | P.Imp = 30*Im/Io<br>P.UIn = 30*UIo/UIM<br>Po = 60*(P.Imp+P.UIn)/MAX(P.Imp+PUIn) |
| Azalpena:<br>- Im: aurkeztutako eskaintzen gutxieneko zenbatekoa.<br>- Io: aztertzen ari den eskaintzaren zenbatekoa.<br>- UIM: aurkeztutako eskaintzetako unitate higiezinen gehieneko kopurua.<br>- UIo: aztertzen ari den eskaintzako unitate higiezinen kopurua.<br>- P.Imp: zenbatekoarekin lotutako puntuazioa, aztertzen ari den eskaintzari emandakoa.<br>- P.UIn: unitate higiezinekin lotutako puntuazioa, aztertzen ari den eskaintzari emandakoa.<br>- MAX(P.Imp+PUIn): aurkeztutako eskaintza guztietako zenbatekoarekin eta unitate higiezinekin lotutako puntuazioaren baturaren gehieneko balioa.<br>- Po: aztertutako eskaintzaren puntuazioa, guztira. | Donde,<br>- Im: importe mínimo de las ofertas presentadas.<br>- Io: importe de la oferta en análisis.<br>- UIM: número máximo de unidades inmobiliarias de las ofertas presentadas.<br>- UIo: número de unidades inmobiliarias de la oferta en análisis.<br>- P.Imp: puntuación asociada al importe, asignada a la oferta en análisis.<br>- P.UIn: puntuación asociada a las unidades inmobiliarias, asignada a la oferta en análisis.<br>- MAX(P.Imp+PUIn): valor máximo de suma de puntuación de importe y unidades inmobiliarias de todas las ofertas presentadas.<br>- Po: puntuación total de la oferta analizada. |

Aurkeztutako proiektu bakoitza balorazio irizpideen arabera baloratuko da, eta balorazio horren arabera emango dira laguntzak. Berdinketa egonez gero, lehentasuna izango dute unitate gehiagora iristen diren proiektuek eta, halere irauten badu, aurrekontu txikiagoa dutenak. Hala ere, ezarritako baldintzak betetzen dituzten eta ondorioz lagungarriak diren eskaera guztiei oinarri hauetan aurreikusitako kopuruan erantzuteko adina kreditu baldin badago, ez da beharrezkoa izango balorazioa egitea, ez eta proiektuen arteko lehentasun hurrenkera ezartzea ere.

Deialdia ebatzi ondoren onuradunen batek laguntzari uko egiten badio, eta horrek kreditua sortzea eragiten badu, kreditu hori beste onuradun bati eman dakioke, beste deialdi bat egin beharrik gabe; beste onuradun hori izango da onuradun izateko baldintzak bete arren nahikoa kreditu ez dagoelako laguntzarik gabe geratu direnen zerrendako hurrengoa, balorazio irizpideen ondorioz erabaki den hurrenkeraren arabera. Hala ere, baldintza izango da uko egitearekin askatu den kreditua nahikoa izatea ukatutako laguntzetakoren bati gutxienez erantzuteko. Aukera hau baliatuz gero, jakinarazi egingo zaio dagokion entitate-

Las ayudas se concederán en función de la valoración otorgada a cada proyecto presentado según los criterios de valoración. En caso de empate tendrán prioridad los proyectos que atiendan un mayor número de unidades y, en caso de subsistir el empate, los de menor presupuesto. No obstante, podrá no efectuarse la valoración ni fijarse un orden de prelación entre las solicitudes subvencionables por reunir los requisitos establecidos, en caso de que el crédito consignado en la convocatoria fuera suficiente para la atención de todas ellas en la cuantía prevista en estas bases.

Una vez resuelta la convocatoria, si se generase crédito por renuncia por parte de las entidades que resultaron beneficiarias podrá asignarse, sin necesidad de nueva convocatoria, a la siguiente de la lista que reúna los requisitos y que no haya sido beneficiaria por falta de crédito, siguiendo el orden que haya resultado de la aplicación de los criterios de valoración establecidos, y siempre y cuando con la renuncia se haya liberado crédito suficiente para atender al menos una de las solicitudes denegadas. Esta opción se comunicará a la entidad correspondiente, a fin de que acceda a la propuesta de subvención en el plazo im-

EK\CV GAO-I-2020-06797

ari, hamar eguneko epe luzaezina emanez dirulaguntza proposamena onartzeko; proposamena onartzean dirulaguntza emateko erabakia hartuko da eta entitateari jakinaraziko zaio.

*9. Dirulaguntzen zenbatekoa.*

Oinarri hauen esparruan eman beharreko dirulaguntzak proiektu bakoitzean diruz lagundu daitezkeen gastu edo inbertsioen % 95 izango dira, edo, hala dagokionean, eskatutako dirulaguntza, kopurua txikiago bada.

Dirulaguntza ematerakoan onartutako aurrekontua erreferentziatzat hartuko da zenbatekoa behin betikoz zehazteko, eta jardueraren azken kostuaren ehuneko gisa kalkulatuko da.

Deialdian baimendutako kreditua agortzen ez bada, diruz lagundu ahal izango da onartutako aurrekontuaren % 5era arteko igoera zuritutako gastuan, betiere desbideraketa hori behar bezala zurituta badago eta lehenengo paragrafoan adierazitako ehuneko bera aplikatuta. Bat baino unitate higiezin gehiago hartzen dituzten laguntza eskaerei dirulaguntza eman behar zaienean, goian aipatu den moduan lagundu ahal izango dira unitate jakin batzuen azken gastuetan izandako igoerak; igoera horiek soberako dirulaguntzekin ere ordaindu ahal izango dira, zehazki, hasieran aurreikusitakoa baino gastu txikiagoa izan duten unitateei dagozkien dirulaguntzekin.

*10. Dirulaguntzak emateko ebazpena.*

Laguntzak eman edo, hala dagokionean, ukatzeko erabakia Ekonomia Sustapeneko, Turismoko eta Landa Inguruneko Departamentuko foru diputatuak hartuko du.

Dirulaguntza emateko ebazpenean alderdi hauek jasoko dira:

— Pertsona onuraduna.

— Objektua, diruz lagunduko den unitatea edo unitateak identifikatuta.

— Diruz lagundu daitekeen aurrekontua edo gastua eta dirulaguntzaren ehunekoa.

— Dirulaguntzaren zenbatekoa.

— Dirulaguntza egotziko zaion kontu-saila edo urterokoa.

— Gauzatzeko eta justifikatzeko epea.

Jarduera bati dirulaguntza ukatu bazaio, ukatzearen arrazoia zein den adieraziko da.

Ebazpena eman eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilabetekoa izango da, deialdia argitaratzen denetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori amaitutakoan ez bada ebazpena jakinarazi, eskatzaileek eskaera ezetsitzat joko dute, administrazioaren isiltasunagatik.

*11. Onuradunen betebeharrak.*

Onuradunek dirulaguntza onartzeak esan nahi du martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauan, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoan, ezarritako betebeharrak (bereziki 13. artikuluan jasotakoak) eta oinarri hauetatik ondorioztatutakoak bete behar dituztela.

Bereziki, betebehar hauek izango dituzte:

— Ekindako lanak osorik onartzen den unetik gutxienez hamar urteko epean laguntzaren helburu izan den sarea jardunean egotea, haien ardura izanik instalatutako azpiegitura eta ekipamendu osoa egoki ustiatzea eta zaintzea, eta zerbitzua etetea eragiten duten gertakarien gutxienez % 95 gehienez ere 24 orduko epean konpontzea. Halaber, sareak aurrera egin dezan beharrezkotzat jotzen diren elementu berriak egokitu eta erantsiko dituzte, hiri-inguruetan edo oso populatuetan eskaintzen diren zerbitzu berak eta baldintza ekonomiko beretan eskainiz.

prorrogable de diez días; una vez aceptada, se dictará y notificará a la entidad el acto de concesión de la subvención.

*9. Cuantía de las ayudas.*

Las subvenciones a conceder en el marco de estas bases supondrán el 95 % de los gastos e inversiones subvencionables en cada proyecto o, en su caso, el importe de subvención solicitado si este fuera inferior.

El presupuesto aprobado al conceder la subvención servirá de referencia para la determinación final del importe de la misma, calculándose éste como un porcentaje del coste final de la actividad.

En caso de no haberse agotado el crédito autorizado en la convocatoria, será subvencionable una desviación al alza en el gasto justificado de hasta un 5 % respecto al presupuesto aprobado, siempre y cuando se encuentre debidamente justificada y aplicándosele el mismo porcentaje de subvención señalado en el párrafo primero. En caso de subvención a un conjunto de solicitudes de ayudas que incluyan diferentes unidades inmobiliarias, podrán también subvencionarse en la forma señalada las desviaciones al alza en el gasto final de determinadas unidades con los importes de subvención sobrantes correspondientes a unidades cuyo gasto final haya sido inferior al inicialmente presupuestado.

*10. Resolución de concesión.*

La resolución sobre la concesión o, en su caso, denegación de las ayudas corresponderá al diputado o diputada foral del Departamento de Promoción Económica, Turismo y Medio Rural.

En la resolución de concesión de la subvención se recogerán los siguientes aspectos:

— La persona beneficiaria.

— El objeto, identificando la unidad o unidades inmobiliarias para las que se concede subvención.

— El presupuesto o gasto considerado subvencionable y el porcentaje en que será subvencionado.

— El importe de la subvención.

— La partida y anualidad a la que se imputará la subvención.

— El plazo de ejecución y justificación.

Para aquellas actuaciones a las que se deniegue la subvención se indicará la causa de dicha denegación.

El plazo máximo para dictar y notificar la resolución que corresponda será de seis meses, a contar a partir de la publicación de la convocatoria. Transcurrido dicho plazo sin haberse notificado la resolución, las personas interesadas podrán entender desestimada su solicitud por silencio administrativo.

*11. Obligaciones de las personas beneficiarias.*

La aceptación de la subvención por parte de las personas beneficiarias implica la sujeción a las obligaciones vigentes establecidas con carácter general en la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa (en particular, en su artículo 13) y las que se desprenden de las presentes bases.

En particular, estarán obligadas a:

— Mantener y operar la red objeto de la ayuda durante un periodo mínimo de diez años a contar desde la fecha en la que las tareas acometidas sean aprobadas íntegramente, siendo responsables de la correcta explotación y mantenimiento de toda la infraestructura y equipamiento instalado, debiendo resolver al menos el 95 % de las incidencias que supongan un corte de servicio en un tiempo máximo de 24 horas. Asimismo, deberán adaptar e incorporar nuevos elementos necesarios para que la red pueda evolucionar ofreciendo los mismos servicios que en zonas urbanas o densamente pobladas, y en las mismas condiciones económicas.

EK\CV GAO-I-2020-06797

